

Osalanek dio Electroquimicak instalazioan "akatsak" zituela istripuz azido klorhidrikoa ixuri zenean

■ Informearen arabera "balbulak indar gutxiko loturak zituzten eta babesik gabe zeuden", argi gutxiegi zegoen eta azido nibelen neurria ez zen fidagarria ■ Enpresak istripua "failo humanoa" izan zela esan zuen.

URTARRILAREN 7an Electroquímica de Hernani S.A. enpresan azido klorhidriko eskapea gertatu zen, balbula bat hautsita. Istripuaren ondorioz langile batek erreak izan zituen eta SOS Deiak-ek Larrialdi Plana aktibatu zuen. Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundeak) istripua argitze-ko ikerketa egin du eta konklusio nagusia da Electroquimicako instalazioak "diseño akatsak" zituela istripua gertatu zenean.

Konkretuki aipatu ditu "balbulak indar gutxiko loturak zituztela eta kolpeen-tzako babesik gabe" zeudela.

Urtarrilean lan istripua izan zen Electroquimican: azido klorhidrikoa isuri zen, depositoko balbula hautsita. Langile bat zauritu zen eta oraindik bajaran dago. CCOO sindikatuak salaketa jarria du enpresaren kontra.

Era berean, dio argi gutxiegi zegoela ("bat ere ez edo gutxiegi"). Osalanek nabarmendu duen hirugarren akatsa da deposituetako azido klorhidrikoaren nibela jakiteko neurria ez zela fidagarria. Bestalde, Osalanen konclu-

sioek diote produkzioaren programazioak ez zuela kontuan hartu deposituak gaueko turnoan beteko zirela erabat. Informeak istripua eta ondorioak azaltzeko aipatzen dituen beste zenbait arrazoi dira: akatsak lan antolaketan eta lan metodo ezegokia, leku gutxi egin beharreko lanerako, babeserako dispositiborik eza, instrukzio gutxiegi, babes ekipoei buruzko instrukzio gutxiegi eta arriskuak neurtzerakoan akatsak, besteak beste.

Laneko arriskuen ebaluazioari dagokionez, berriz, Osalanek dio istripua gertatu zenean Electroquimican kon-

kordantzia falta zela barruko larrialdi planaren eta Industria Asistentzia Teknikoak egin-dako planaren artean.

Konpontzeko neurriak

Osalanen informeak zenbait neurri ere proposatzen dizkio Electroquimicari egoera konpontzeko. Nagusiena da azido klorhidrikoa edukitzeko lekua ahalik eta automatikoen aza-tea. Horretaz gain proposatzen du larrialdi plana aldatzea, balbulak erabat babestuta ego-tea, neurketa sistemak konpontzea, argi ona jartzea, eta langileentzako programa pres-tatzea formazio eta informazio egokia emateko. □

Txantxangorrik eta Ur-Miak batzarra

TXANTXANGORRI eta Ur-Mia elkarteek batzarra egingo dute igande honetan. Txantxangorriren kasuan, batzar berezia izango da zuzendaritza berria aukeratzeko. Deialdiak: 09:30etan eta 10:00etan.

Ur-Miak, berriz, urteko batzarra egingo du eta bi puntu nagusiak dira urteko balantzea eta zuzendaritza berritzea. Deialdiak: 10:00etan eta 10:30etan. □

PELOTA

Berria txapelketako finala eta GRAVN txapelketa gaur

BERRIA txapelketako finalak jokatu dira gaur kiroldegian, 16:30etan, Amezketako *Zazpi Iturri* eta Bidegoiango *Aurreratsaiaz* taldeen artean. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 24 talde onenak hartu dute parte eta bi hauek pasa dira finalera. Horrez gain, gaur goizeko 10:30etatik aurrera GRAVN sariketako partiduak jokatu dira Hernanin eta Eskuz 2naka jubeniletan Gorrotxategik jokatu du Gipuzkoako ordezkari. Bestalde, Udaberri Txapelketaren barruan, finalak jokatu dira asteburuan. Igandean, Hernaniko Erdozio-Zurutuzak Oñatiko Aloña Mendi taldeko bikotearen kontra jokatu dute. Partidua goizeko 10:30etan da ikaztegieta. □

XAKEA

IV. Xake txapelketa herrikoia

BIHAR bukatzen da IV. Xake Txapelketa Herrikoian izena emateko epea. Izena eman duten guztiekin zozketa egingo da eta datorren astean emango zaio hasiera. Hala ere, apirilean zehar ere badago izena emateko aukera baina, horrela egiten dutenek bi bizitzarekin hasiko dute txapelketa (besteek hiru dituzte). Izena emateko lekuak: Aker, Bodega, Goiz Argi, Haida edo Kitto. □

Oronako planta berrian 45 ingeniari ariko dira ikerketan

ORONA Kooperatibak planta berria inauguratu zuen atzo Epelen. Orain Urumea erreka-aren bi aldeetan 70.000 m²ko azalera eta urtean 10.000 aszensoretik gora egiteko azpiegitura izango du. Atzo inauguratu zuten planta berriaren ezaugarrietako bat Ikerketa Zentroa da. Denera, 45 ingeniari ari-tuko dira etengabe ikerketan eta edifi-zioaren bigarren planta osoa izango da berrikuntzarako. Horretaz gain, formazio zentroak, aszensoreak proba-tzeko torrea eta Orona Taldeko Zuzen-daritzaren lantegi berriak dihoaz.

Jokin Esnal Oronako zuzendariak adierazi zuen Oronak etorkizunarekin duen konpromisoaren seinale dela Epeleko planta berria eta gazteak kooperatibaren bidetik jotzera animatu zituen. Denera, 14,5 miloi euroko in-bertsioa egin da eta erakunde publiko eta MCCren laguntza izan du. Orona Taldeak 2.200 langile ditu eta hori-etatik 800 Hernanin. Bost urteotan 1.000 lanpostu sortu ditu. 2002an ber-tan, 200 sortu zituen, produkzioa % 23 igo zen eta 23,5 miloi eurotik gorako irabaziak izan zituen. □



Oronako zuzendari eta langileak planta berriaren aurrean atzo, inaugurazioan.

Telemar

Itxastele, S.L.
Elkano 13 - 943 55 33 99 - 943 33 00 49

Telefonia mugikorrean

MOTOROLA C 353 NOKIA 3510i

Pasa zaitez MOVISTARra zenbakia mantenduta, 0 eurotik.

Apirilean ere eskaintza bereziak

Elektrogailuetan

TIEN 21 PLAN REMOVE

Lirain

GAZTE JAZKERA

Udaberri udako moda

Larrazpegi Kalea, 9 Tel: 943 553 949

Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua

Ford FocusC-MAX

Ford Focus familiako kide berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10- 13

Balzak dio Ertzantzak ez duela zerikusirik izan Kontxi Sanchizen heriotzean; familiak gezurra esatea eta lotsarik ez izatea leporatu dizkio Herrizaingo Sailburuari

■ Goirizelaia Sako legebiltzarkideari erantzunez egin zituen adierazpenak Balzak eta esan zuen “ Otegik epailearen aurrean erantzun beharko duela” ■ Familiak berriz ere esan du Sanchiz kargaren ondoren hil zela eta Ertzaintzak laguntza ukatu ziela.

JAVIER Balza Jaurilaritzako Herrizaingo Sailburuak herenegun adierazi zuen “Ertzantzak ez duela zerikusirik Kontxi Sanchizen heriotzean”. Balzak esan zuen Sanchiz ez zela hil Ertzantzaren karga baten ondorioz, bere esanetan “manifestazioan egon ere ez zelako egin” ondoeza poliziaren kargaren aurretik sentitu zuelako. Bestalde esan zuen, familiarrek ez ziotela laguntzeko eskatu Ertzantzari eta Ertzantzak heriotza pasa eta ordu batzuen buruan izan zuela gertaeraren berri. Balzaren esanetan datu ofizialak eta polizialak dauzka baieztapen hau egiteko “anbulantzia eske egindako telefono deiak, Sanchiz laguntzera joandako osasun-langileen adierazpenak, Ertzantzaren bertsi-oak eta senitartekoen jokae-ra”. Balzak esan zuen Otegik epailearen aurrean bukatuko

duela bere esanetan Otegik esan zuelako Sanchiz Ertzantzak hil zuela “eta hori gezur objektiboa da. Balzak “manipulatzea eta gezurra esatea” leporatu dizkie Batasunako buruzagiei.

“Kontxi Ertzaintzaren kargaren ondorioz hil zen” Hernaniko Kronikara bidalitako karta batean Kontxi Sanchizen familiak Balzaren jarrera salatu du eta lotsarik eta duintasunik ez duela leporatu dio Herrizaingo Sailari, azkeneko deklarazioen harira. Familiak orain arte esandakoa berretsi du: Sanchiz Ertzantzaren kargaren ondoren hil zela eta “ihes egin nahian portal hartan sartu zen eta bere alaba Nagoreri Ertzain batek laguntza ukatu zion”. Herri-zaingo Sailburuaren jarrera salatu du familiak eta “beretako inor” ez dela familiarekin har-

remanetan jarri eta ikerketa “oso barnekoa eta ezer kontrastatzeko aukerarik gabea” egin izana leporatu dio. Familiak Herrizaingo Sailari esan dio “horrelako familia tragedia batean inori ez zaio bururatz-ten: 200 metrora manifestazio bat pasatzen dela eta goazen errua Ertzantzari leporatzera”.

Goirizelaiak datuak manipulatu direla dio Goirizelaiak Balzari erantzuteko txandan “poliziaren jok- era nola edo hala babestu behar duzu eta horretarako berdin zaizu datuak manipulatzea” esan zion Herrizaingo Sail- buruari. Goirizelaiak esan zuen Sanchiz Ertzantzaren kargaren ondoren hil zela eta horre- lakoak Ertzantzari hainbatetan gertatu izan zaizkiola. Bestal- de, salatu zuen herritarrei laguntza ukatzea ere normala bihurtu dela Ertzantz- an. □

JASOTA BEZALA

Balzaren agerpenaren aurrean Kontxi Sanchizen familiak komunikabideei
Martxoaren 14an Ertzantzaren kargaren ondoren hildako Kontxi Sanchizen senarrak, alabek, anaiak, koinatak, ilobak eta gaine- rako senitartekoez, zera azaldu nahi dute:
1- Berretsi egiten dugu agerpen publiko guztietan esandakoa eta martxoaren 15ean zabaldutako notan idatzia.
2- Berririo diogu, Kontxiren he- riotza, Ertzantzak jarraitzea bai- mendu zuen manifestazio baten kontra egindako kargaren ondoren gertatu zela, orduen gaineko pole- miketatik independienteki (gu ez geunden orduari begiratzeko). Kontxi portal hartan sartu zela kargari ihes eginaz eta bere alaba Nagoreri ertzain batek laguntza ukatu ziola, bere amaren egoera-

ren aurrean, beste batzuk ezer egin gabe zeuden bitartean.
3- Barne Sailaren jarrera salatzen dugu publikoki, bere arduradun nagusia buru dela, egia bilatzeko eta erantzukizunak garbitzetik urruti, iseka egitera dedikatzen baita.
Balza jauna, zuetako inor ez da gurekin harremanetan jarri, zueta- ko inork ez du bildu gure testimo- nioa. Oso ikerketa barrukoa, ezer kontrastatzeko aukerarik gabe!
Balza jauna, entzundakotik hitz egiten duzu, bestek esandako- tik hitz egiten duzu, hori da gure aldea. Guk tragikoki bizitu ge- nuen! Eta familiako tragedia baten aurrean inori ez zaio bururatz- en: aizu 200 metrora manifestazio bat pasatzen dela eta goazen errua Ertzantzari leporatzera. Izan gaite- zen serioak gutxienez! duintasu- nik ez duzula azaldu duzunez.
4- Apenas pasa dira bi aste eta ez

dakigu jakingo duzun zer kostat- zen den osatzea, norbaiti bizia puskatu diotenean, baina, gainera zauriaren gainean zuk gatza bota- tzea zen falta zitzaiguna. Orain ez da gauzak ziren bezala ez direla, Kontxi han ez zegoela baizik. Ez duzeu lotsarik!
5- Zorionez, gure minaren aurre- an erakutsen ari zaren desprezioa- ren aurrean, gure indignazioa arintzen da beren solidaritatea azaldu diguten pertsonen babes sinzeroarekin; eta beren artean zure partiduko militante eta boto emaille asko aurkitzen dira Hernanin, nahi ez baduzu ere zure bertsioa sinisten ez dutenak.

Carlos Sanchiz eta Nagore Gonzalez Sanchiz Kontxi Sanchizen familiaren izenea (*Erredakzioan itzulia)

HITZ BITAN



Aitor Ruiz de Eginok bere arte lanen ondoan.

✓ ERAKUSKETA

Aitor Ruiz de Eginok 50 artelan berri. Aitor Ruiz de Eginok artista hernaniarrak *Gorpuak* erakusketa jarri du Erretereriako Gaspar Aretoan (Santxoenea, 16). Ruiz de Eginok 50 pieza berri jarri ditu zeramika, brontze eta aluminioz egi- nak. Erakusketa honen aurretik, Ruiz de Eginok beste bat jarri zuen aurpegiei buruz. Gaspar Aretoak sona haundia du arte erakusketetan. 30 urtetik gora daramazki lan horretan eta Koldobika Jauregi, Ameztai edo Zumeta bezalako artistek ere egin izan dituzte hor beren lanak. Erakusketa apiril osoan egon- go da, eta egunero egongo da zabalik, astelehenetan izan ezik, 17:00etatik 22:00ak arte.

✓ ANTZERKIA

‘La Leccion’ antzezlan- a gaur Andragoton. *Elvira & Pierre Produccionesek* produzitutako eta Eugene Lonescok idatzitako obra da hau. Gaur arratsaldeko 19:30etan, Andragoton.

✓ IGERILEKUA

Igerilekua itxita bihar 11:30etatik aurrera. Waterpolo partidua- k direla-eta igerilekua itxita egongo da bihar goizeko 11:30etatik aurrera.

✓ FUTBOLA

Bi taldeak kanpoan jokatuko dute. Gorengo taldeak Beti Gazte taldearen kontra jokatuko du gaur, 17:00etan Maistegi zelaian, mailari eusteko bere borrokan. Emakumezkoen Kopan Hernanik Ostadarren kontra jokatuko du Michelinen, eguerdiko 12:00etan. □

OROIGARRI MEZA

Pablo Zubiarrain Otxotorena

2002ko apirilaren 4an hil zen



Pablo hil zela bi urte bete diren honetan, bere seni- tartekoez oroigarri meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu hura ezagutzen zenuten guztiak.

Urtebetetze meza, **bihar, igandea, apirilak 4**, goizeko 12:00etan, Santa Maria Magdalena, Zaharren Egoitzako kapillan.

Hernanin 2004ko apirilaren 3an

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: **943 55 02 54** (astelehenetik-ostiralera) edo **608 12 07 32**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berte- brala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Sta Barbara 42)

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udalizaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Aizpuru
Latsunbeberri 11
☎ 943 336077
►Gauetz: De Miguel
Lasarte. Nagusia 32
☎ 943 361556

HERNANI HIZKUNTZAK ENGLISH

Gure Ingelesetxea

Hurrengo astean klaseak izango dira, astelehena, asteartea eta asteazkenean. Oporretatik bueltan, apirilaren 19an, astelehena hasiko gera berriz.

Alan / Joe ☎ 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	No iz	PELOTA	Non	No iz	
Goren.	BetiGazte-Hernani	Maistegi	Gaur17:00	UdaberriTxapelketa			
Emaku.Lig	Ostadar-Hernani	Maistegi	Gaur12:00	Ezkuz-jubenil	Abñamendi-Hernani	Kaztegieta	Bihar10:30
Gaz.Eusk	Hernani-LagunOnak	Zubieta	Gaur16:30	GRAVN Txapelketa			
Gasteak1	Oñako-Hernani	Antilla	Gaur16:30	Eskuz-jubenil	Axpe	Kiolegia	Gaur10:30
Kad.Ohor	Hernani-Touring	Zubieta	Bihar12:00	Eskuz-jubenil	Lanañaga-Gontzategi	Kiolegia	Gaur10:30
Kadeteak1	Hernani-Vasconia	Zubieta	Bihar16:30	K.Hernaniko Pala Txapelketa			
Haur.Ohor	Hernani-Añorga	Zubieta	Gaur13:00	Pala binaka	AsierJuan MariEñaut-Xabier	Kiolegia	Bihar10:30
Haur.1	Atsedenañña			Pala binaka	M anuelEkaiz/UnaiJoseba	Kiolegia	Bihar11:30
Alebinak	Hernani-Lengokoak	Zubieta	Bihar10:30	Pala binaka	Oscar-ban/NaniJonkar	Kiolegia	Bihar12:30
WATERPOLOA				Pala binaka	Ñaki-bai/M az-Gonzalez	Kiolegia	Bihar13:30
Euskall.Liga	Hernani-Mendiño	Kiolegia	Bihar12:00	ERRUGBIA			
Euskall.Liga	Leba-Hernani	Leba	Bihar13:00	Igoera fasea	Hernani-Xestur	Landane	Bihar12:00
BOLEBOLA				Kadeteak	Hernani-Oñiza	Landane	Gaur
Igoera fasea	Unir-bñ-Hernani	Logroño	Gaur19:00	Infantilak	Hernani-Añetko S.S.	Landane	Bihar10:30
Igoera fasea	Hernani-BereziGasteiz	Kiolegia	Bihar11:00	Alebinak	Bañiz-Hernani	Agüera	Gaur10:00
Euskad.Nesk	Uni-Navarra-Hernani	Ilurbea	Bihar11:30	SASKIBALOA			
				Kade.Gipuzko	Zarautz-C.Hernani	Zarautz	Gaur18:00